

GIL 18 Peñalbako plataforma karbonatatuak



Peñalbako plataforma karbonatatuaren ikuspegia.

Kokapena (hegoaldeko ebakiko erdigunea):

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 16' 26,62 ''

Long.: 3° 13' 45,80''

- **UTM koordenatuak:**

X: 481.386,16 m

Y: 4.791.275,16 m



Nola iritsi

BI-2617 errepidean, Turtziozko hirigunearen iparraldean, hartu Gordón auzora doan saihesbidea. Gordóndik, joan hegoalderantz, Peñalba erreka sortutako haitzarera. Han, agerian gelditzen da sakonera txikiko uretako arrapala karbonatutako kareharrien ebaki estratigrafiko oso samar bat. Bada beste aukera bat ere: Turtziozko erdigunetik Peñalba erreka errekaren eskuineko ertzari ia segika ekialderantz doan pista hartzea. Sakanaren hondotik joaten denez, ordea, arrapalaren ikuspegiak ez dira hain osoak.

GILaren deskribapen laburra

Peñalbako arrapala karbonatua Albiarreko sakonera txikiko uretako arrapala karbonatatuak irtengunea duen plataforma karbonatatuaren fasearen aurretik izan zituen hiru faseetan hirugarrenari dagokio (irtengunea: ertza, sedimentazio-eremu sakonagoetara doan ezponda duen; ikusi GIL 16). Peñalbako azaleramendu ikusgarriek arrapala horien arkitektura estratigrafiko biziki osatua ikusteko aukera ematen dute; Eusko-Kantauriar arroko adibide onena dira.

Peñalbako kalkarenitak *packstone* eta *grainstone* bioklastikoen faziesez osatuak daude (klastoek elkar ukitzen dute, eta haien artean oso lohi karbonatatu gutxi dago, zerbait egotekotan), non krinoideoak eta briozooak nagusi baitira. Arrapala mota hori dagoen sakonera txikiko uretako eta kostaldetik urrun dagoena izaten da; hots, tarteko arrapalatzat jo daiteke. Sakonera txikiko uretako fazies mota horrek aurreko gertaeretakoa arrapala distalaren zati batzuen gainean izan zuen hedadura handieneko ekialderanzko prograzio-fasea erakusten du (Bernako espikuliten unitatea; Aranburu, 1998).

Peñalbako arrapalaren azken zatia nagusiki mikritikoa da, eta oxigeno minimoko zonako aldaketa batzuekin erlazionatutako itsas ingurunean bat-batean gertatutako aldaketa baten adierazlea da (Aranburu *et al.*, 1998). Haren gaina itsas mailaren beheratzearekin eta failen jarduerarekin erlazionatutako higadura-eten bat da. Hala, Peñalbako arrapalaren alde urrunenean graben bat eratu zen. Han, hondeatutako paleoarroiak betetzen zituzten kareharrizko bretxak jalki ziren hasieran, eta, ondoren, jatorri tektonikoko ildo batean sartuak zeuden sakonera txikiko uretako hareharriak.

Bigarren mailako interesa

Peñalbako arrapalaren gainaren etenak itsas mailaren beheratze erlatibo batekin erlazionatutako airepeko esposizio bat izan zela adierazten duten disoluzio-aztarnak eta zementuak ditu. Geroagoko fluidoek (Kretazeokoek? baliatu zuten hala sortutako porositate Pb-, Zn- eta Fe-mineralak jalkitzeko. Faila jakin batzuen jarduera sinsedimentarioak eta hausturei lotutako mineralizazioak adierazten dute fluidoak porositatearen bidez igo zirela hausturetatik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 146.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 17, GIL 18.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa			●	
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak		●		
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Aranburu, A., Fernández-Mendiola, P. A. eta García-Mondéjar, J. (1991). "Una rampa carbonatada con fases de emersión y excavación de paleocañones (Calcarenitas de Peñalba, Albiense inferior, Bizkaia)". *Geogaceta* 10, 13-16.
- Aranburu, A., Fernández-Mendiola, P. A. eta García-Mondéjar, J. (1992). "Contrasting styles of paleokarst infill in a block-faulted carbonate ramp (Lower Albian, Trucíos, N Spain)". *Geogaceta* 11, 42-45.
- Aranburu, A., Fernández-Mendiola, P. A., Owen, H. G. eta García-Mondéjar, J. (1998). *A benthos-killing event in the earliest Albian (Trucíos, central northern Spain)*. 15th International Sedimentological Congress, Alacant, Abstracts book, 143-144.
- López-Horgue, M. A., Aranburu, A., Fernández-Mendiola, P. A. eta García-Mondéjar, J. (2000). "Existencia de una discordancia angular con laguna del Albiense medio en el Complejo Urgoniano de Ranero (Ramales-Karrantza, región vasco-cantábrica)". *Geogaceta* 28, 89-92.